

OLAZTIKO HERRILURRETAKO APROBETXAMENDUAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

Hasierako Testua 2004ko azaroaren 26ko 142. NAOn argitaratua
Testuaren aldaketa 2014ko abuztuaren 28ko 168. NAOn argitaratua (*Testua kurtsibaz*)
2015eko abuztuaren 11ko 155. zenbakidun NAOn argitaratua

I. TITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Olaztiko udal mugapeko herrilurretako ondasunen administrazioa, erabilera, zainketa, berreskuratzea eta aprobetxamendua erregulatzen dituzten arauak ezartzea da ordenantza honen xedea.

2. artikulua. Herri ondasunak dira herri honetako bizilagun guztiek aprobetxatu eta erabil ditzaketenak.

3. artikulua. Herrilurretako ondasunak besterenduezinak, preskribaezinak eta bahitezinak dira eta ez dute beren gain tributurik izanen.

Ez dute aldaketarik jasanen beren izaeran nahiz tratamendu juridikoan, edozein dela ere haiek aprobetxatu edo erabiltzeko era.

4. artikulua. Herrilurretako ondasunen gaineko arauak hauek dira: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea eta haren erregelamenduzko xedapenak; Nafarroako Foru Zuzenbide Administratiboaren gainerako arauak; herrilurren ordenantza hau eta, bestela, Foru Zuzenbide Pribatuaren arauak, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 40. artikuluko hirugarren atalean xedatutakoa deusetan galarazi gabe.

II. TITULUA

Administrazioa eta xedapen egintzak

5. artikulua. Herri ondasunen gaineko ahalmenak, dela haien erabileraz, dela administrazioaz, dela aprobetxamenduaren araubidez, dela antolamenduaz den bezainbatean, Olaztiko Udalari dagozkio, ordenantza honetan azaltzen den moduan.

Herrilurretako ondasunen inguruan Olaztiko Udalak hartzen dituen erabakiek Nafarroako Gobernuaren baimena beharko dute, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legean ezarritako kasuetan.

6. artikulua. Lurzati txikiak saldu edo trukatzeko desafektazioa egin aitzinetik Nafarroako Gobernuak haien onura publiko edo soziala deklaratu beharko du eta, hori baino lehen, Olaztiko Udalak justifikatu beharko du dagoen asmoa ezin dela beste bide

batzuen bitartez lortu, hala nola lagapena eginez edo kargak ezarriz, horiexek izanen baitira lehentasuneko aukerak.

Herrilurretako ondasunak desfektatu ondotik beste batzuei lagatzeko edo kargak ezartzeko hartzen diren erabakietan, itzultze klausula sartuko da, egintza horien helburuak edo baldintzak desagertu edo betetzen ez diren kasuetarako.

Halakorik gertatuko balitz, lur horiek Olaztiko Udalaren ondarrera itzuliko lirateke herrilurretako ondasun gisa. Hasierako prezioari adjudikazioaren ondoko urteetan diruaren balioak izan duen gorakada aplikatuta eginen litzateke itzulketa.

Herrilurrei buruzko Foru Legearen 6. artikuluan eta haren Erregelamenduan ezarritako prozedurari jarraituko zaio.

III. TITULUA

Herrilurretako ondasunak zaindu eta berreskuratzea

7. artikulua. Olaztiko Udala herrilurretako ondasunak zaindu, defendatu, berreskuratu eta hobetzen ahaleginduko da, eta kontra eginen die horientzat kaltegarri izan daitekeen edozein pribatizazio saiori edo bestelako ekintzari.

8. artikulua. Olaztiko Udalak berez eta noiznahi berreskuratzen ahalko du herri ondasunen jabetza, aldez aurretik legelariaren txostena ikusi eta interesatuari entzutea emanda. Beharrezko denean, ekintza zibilak sustatuko ditu, herri ondasunak berreskuratu eta defendatzeko.

9. artikulua. Olaztiko Udalak Nafarroako Gobernuari Jabetza Erregistroak igortzen dizkion ediktuen berri emanen dio, lursailen inmatriculazioa edo herrilurrekin mugakide diren lursailen hedadura soberakina dela eta. Udalak osoko bilkuran hartu beharko du jakinarazpen horien inguruko erabakia.

10. artikulua. Olaztiko Udalak Nafarroako Gobernuaren aldez aurretiko onespren berriazkoa beharko du, ondasunak herri ondarrerako berreskuratzearen eskualdaketarik egin nahi izanez gero.

11. artikulua. Udalak administrazio bidea erabiliko du beti, baimen, kontzesio edo beste zernahiren kariaz herri ondasunen gainean sortutako eskubideak eta haiek ekarritako okupazioak iraungitzeko, eta ahalmen hertsatzaileez baliatuz. Aldez aurretik kalteordaina eman ala ez, zuzenbidearen arabera izanen da.

12. artikulua. Olaztiko Udalak, herri ondasunei buruzko kontratuetan partaide denean, interpretatu eginen ditu eta horiek betetzean sortzen diren zalantzak argituko.

Interpretatzeko erabaki horiek berehala hartuko dute indarra, eta ez dute galaraziko kontratugileek bide jurisdikzionaletan behar den deklarazioa lortzeko duten eskubidea.

13. artikulua. Olaztiko Udalak herri ondasunak defendatzeko bidezko diren ekintzak sustatzen ez dituenean, herritarren ekimena posible izanen da zehaztuko den moduan.

Ekintza horrek aurrera eginez gero, Udalak itzuli beharko dizkie herritarrei sortutako gastuak.

IV. TITULUA

Herrilurretako ondasunen aprobetxamendua

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

14. artikulua. Ordenantza honek aprobetxamendu hauek arautzen ditu:

a) Herrilurren aprobetxamendua, baratzeetako laborantzan, belar-soroetan eta fruta-arboletan.

b) Herrilarreen aprobetxamendua, mendi antolatuan.

c) Etxerako egurraren aprobetxamenduak.

d) Herrilarreen aprobetxamendua, Urbasako ipar isurialdean, betiere behar den baimena lortzen bada dagokion departamentuaren aldetik. Lur horretarako baldintza berariazkoak izanen ditu, etorkizuneko eranskin batean definituko direnak (lurraren erdia izanen da gaur egongo eskarirako eta lurraren beste erdia abeltzain berriendako).

15. artikulua. Olaztiko Udala herrilurren ekoizpena abian jartzen, hobetzen eta egoki aprobetxatzen ahaleginduko da eta duten izaera sozialarekin bateragarri egingen du.

16. artikulua. 1. Orokorrean, Olaztiko herrilurretako aprobetxamenduen onuradun izateko, famili unitateen titularrek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Adinez nagusi izatea edo adingabe burujabea nahiz judizialki gaitua.

b) Udalaren Biztanle Erroldan bizilagun bezala inskribatua egotea 3 urteko antzintasunez.

c) Olaztin urtean bederatzi hilabetez gutxienez egiazki eta jarraian bizitzea.

d) Udalerrri honekin eta onuradunak loturak dituen toki entitateekin zerga betebeharrak guztiak eguneratuak izatea.

e) Aziendak Olaztiko Udaleko katastroan inskribaturik edukitzea, nagusiki bazka ekoizten duten herri aprobetxamenduen onuradunentzat.

2. Baldintza hauek betetzen dituen famili unitaterik ez bada edo herrilurretako aprobetxamenduen eskaririk egiten ez bada, Olaztiko Udalak adjudikazioa egiteko legean aurreikusten diren beste moduak erabiliko ditu.

17. artikulua. Etxebizitza batean elkartuta bizi diren guztiak famili unitateko kideztat hartuko dira. Nolanahi ere, famili unitate independientetzat hartuko da guraso jubilatuek osatua, familiakoekin bizi arren, betiere haien dirusarrerak lanbidearteko gutieneko soldata baino apalagoak baldin badira.

II. KAPITULUA

Laborantzako eta frutarboletako herrilurren aprobetxamendua

18. artikulua. Herrilurren aprobetxamendua zuzenean adjudikatuko zaie famili unitateko titular diren bizilagunei, ordenantza honen 16. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

19. artikulua. 1. Herrilurrez baliatzeko esleipenean, Olaztiko Udalaren irizpideak berdintasuna eta zuzentasuna izanen dira, eta lehentasuna emanen die baldintza hauek betetzen dituzten famili unitateko titular diren bizilagunei:

a) Famili unitate bakoitzeko dirusarrera apalenak badituzte.

b) Jabetzan edo beste nolanahi ezaugarri bertsuko lurrik ez badute.

c) Bestelako herri aprobetxamendurik ez badute.

2. Aurreko lerroakdeko irizpideak datu objektiboetan oinarrituz finkatuko dira, hala nola pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortpena, soldatak, laborantzako lurrak errentamenduan nahiz beste edozein tituluren bidez edukitzea, landa-lurraren, aziendaren eta industriaren gaineko kontribuzioen kapital zergagarria, hirilurraren gaineko kontribuzioarena, norberaren etxebizitzari dagokiona kenduta, bai eta gisako izaera duen beste edozein datu ere.

20. artikulua. Herrilurretako aprobetxamenduengatik ordaindu beharreko kanona ordenantza honen eranskinean ezarritakoa izanen da.

21. artikulua. Herrilurretako aprobetxamenduez baliatzeko epea 10 urte izanen da, frutarboletako lurzatietakoa izan ezik, 15 urte izanen baita.

22. artikulua. 1. Herrilurrak eta frutarboletakoak zuzenean aprobetxatuko dira, ez baita zilegi lagatzea edo besteri errentan ematea.

2. Herritar bakoitzari adjudikatzen zaion laborantzako luraren azalera Olaztiko Udalak finkatuko du, herrilurraren erabilgaitasuna eta esleitutako luraren ekoizpen ahalmena kontutan harturik, eta eskatzailearen ustiapen edo premien, eta famili unitatearen egoera ekonomikoaren ariora.

23. artikulua. 1. Olaztiko Udalak egoki juzgatzen dituen egiaztaketak egiten ahalko ditu edozein unetan, laborantza zuzenean eta pertsonalki egiten dela ziurtatzeko.

2. Ondoko kasu hauetan ulertuko da larreak ez direla zuzenean aprobetxatzen ari:

- a) Nekazaritzako makineria izanik, berari esleitu herrilurrak lantzeko erabiltzen ez bada.
- b) Landazaintza Zerbitzuaren edo Olaztiko Udaleko Nekazaritza Batzordearen txostenari jarraituz, lurak zuzen eta pertsonalki lantzen ez dituztenean.
- c) Ondoko alderdi hauen gaineko egiaztagiriak eskatu eta agindu epean aurkezten ez badira: lurra lantzea, lehengaiak erostea eta produktuak saltzeko lanak, berek edo Udalak baimendutako pertsonak eginak.
- d) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Aitorpenean nekazaritzako etekinik airtortzen ez duenean, horretara beharturik daudenean.
- e) Landalurren jabeak izanik, hirugarrenei errentan utzita badituzte.
- f) Bazka ekoizten duten herrilurren adjudikazio hartzaileak izanik, aziendak Udal honetako abere aberastasunaren katastrofik ateratzen dituztenean.

24. artikulua. Onuradunek zuzen behar dituzte laborantzako herrilurrak landu eta probetxatu.

25. artikulua. Onuradunek herrilurrak ezin izanen dituzte erabili, Udalaren alde aurreko baimenik gabe, adjudikaziokoak ez diren beste aprobetxamendu batzuetarako.

26. artikulua. Esleitutako herrilurretan itxiturak egiteko Olaztiko Udalaren baimena beharrezkoa da. Itxiturak egiteko zurs erabiliko da, edo taketak burdin hariekin, edo landareak. Debeku da fabrika-obrako itxiturak egitea, hala nola adreiluzkoak, edo hormigoi-blokezkoak. Nahitaezkoa izanen da pertsonendako pasabideak paratzea, Udalak zehazten duen tokian, herrilarreetan zehar joan-etorriak nahieran egin ahal ditzaten.

27. artikulua. Herrilurrak jabego pribatuko lurrekin batera itxi ahal izanen dira, betiere mugarriekin behar bezala seinalatuta eta herrilurrak direla adierazten duten txapak jarrita.

28. artikulua. Herrilurren aprobetxamendua ezin izanen da trukatu onuradunen artean, alde aurretik interesatuek eskaria egin gabe eta Olaztiko Udalak baimenik ematen ez badu.

29. artikulua. Olaztiko Udalak, onuradunei hiru hilabete lehenago jakinarazita, aprobetxamendu horien esleipenak bertan behera utz ditzake, herrilur horietan arbolen landaketak edo beste hobekuntza batzuk egiteko asmoa baldin badu. Aditzera ematen da, laborantzako lurren aprobetxamendua utzi beharra dagoenean onuradunak ez duela eskubiderik izanen kalte-ordainik jasotzeko. Hobekuntza horiek egiteko Nafarroako Gobernuaren baimena beharko da alde aurretik.

III. KAPITULUA

Herrilarreen aprobetxamendua

30. artikulua. Herrilarreen aprobetxamenduari dagokionez, antzinako ohiturari, edo lege nahiz hitzarmenari jarraituz ustiapen unitatea osatzen duten beste finka partikularrekin batera, Udalak, aprobetxatzeko aldiaren hasieran, eremu batzuk bereiziko ditu.

31. artikulua. Herrilurren aprobetxamendua zuzenean adjudikatuko zaie famili unitateko titular diren bizilagunei, ordenantza honen 16. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

32. artikulua. Herrilurrak adjudikatzerakoan Olaztiko Udala irizpide sozialetan oinarrituko da, diru aldetik apalenak diren famili unitateei lehentasuna emanen dielarik.

33. artikulua. Onuradunen maila ekonomikoak zehazteko, Olaztiko Udala irizpide objetiboetan oinarrituko da, ordenantza honen 19. artikuluan adierazten den bezala.

34. artikulua. Herrilarreen aprobetxamendua zuzenean eta pertsonalki egingen da, eta ez da baimenik emanen azpierrentamendua egin edo beste batzuei lagatzeko. Hori horrela, famili unitateko titularrek azia udalerriko abere aberastasunaren katastrofik ateratzen dutenean, herri larreak ez direla zuzenean erabiltzen ulertuko du Olaztiko Udalak.

35. artikulua. Herrilarreetan bazkatzen den aziak osasun ziurtagiria beharko du, Herrilarreetan bazkatzen den Azien Osasun Babesari buruzko maiatzaren 4ko 5/1984 Foru Legeko 1. artikulua eskatutako baldintzak betetzen direla egiaztatzeke, eta Foru Lege horretako nahiz bere erregelamenduetako baldintza guztiak bete beharko ditu.

36. artikulua. Debeku da larreak zerri azientarendako erabiltzea.

37. artikulua. Larratzeko eremu bakoitzera bota daitekeen azientaburu kopurua zehazteke, Olaztiko Udalak honelako baliokidetasunak paratuko ditu azia mota ezberdinen artean:

_Behi bat 8 ardi adina da.

38. artikulua. *Bazkatzeke sasoiak, azia mota eta haien kopurua finkatzeko, Olaztiko Udalak irizpide hauek ezarri ditu:*

–Azientak urtarrilaren 20tik martxoaren 31 arte aterako dira menditik. Behor azia salbuespena izanen da, larratzen utziko baitzaio sastrakak garbitutako aldean, hau da, Arkinozulo-Azkonetan (ahuntzendako behinolako itxitura).

39. artikulua. Eguraldiaren gorabeheren arabera edo larreak ugari eta nasai heldu badira, aurreko artikuluan azia botatzeko ezarri diren egunak aldatu ahalko dira Olaztiko Udalak, osoko bilkuran, horrelakorik erabakiz gero.

40. artikulua. *(2015eko abuztuaren 11ko boletinean argitaratua, 155. zenbakiduna)*

Herrilurretan larratzen diren azia guztiak herriko abeltzainenak izanen dira.eko

Goragoko araudiek behartzen dituzten azienda guztiek belarritako elektronikoa eraman behar dute eta azientaren saneamenduaren frogagiria izan beharko dute, indarrean izan ere. Behor azientarendako nahitaezkoa izanen da urteko desparasitazioa, eta zehaztuko beharko dira desparasitatzeko produktua eta tratamenduaren data.

Azienden jabeek urtero ordaindu beharko dute ordenantza honen eranskinean ezarri kanona edo prezioa. Prezio horiek urtero berrikusten ahalko dira, baita aldatu ere osoko bilkuran erabakita.

Azienda mendiratu aurretik, Udaletik pasatuko da sartzen diren abelburuen jasota gera dadin, belarritako elektronikoaren zenbakiarekin eta eskatzen diren osasun ziurtagiriekin.

Horretarako paratu den edo Udalak finkatu duen itxituren markaturiko mugetatik kanpora aurkitzen diren azienda guztien jabeek zehapen espedienteak irekiko zaie; zehapena 40 euro izanen da abelburuko. Udalak horren gaztigua ematen dietetik, hiru egun natural izanen dituzte eramateko.

41. artikulua. Olaztiko Udalak, onuradunei hiru hilabete lehenago jakinarazita, aprobetxamendu horien esleipenak bertan behera utz ditzake, herrilur horietan arbolen landaketak edo beste hobekuntza batzuk egiteko asmoa baldin badu. Hobekuntza horiek egiteko Nafarroako Gobernuaren baimena beharko da aldez aurretik.

V. TITULUA

Etxerako egurraren aprobetxamendua

42. artikulua. Mendian nahikoa izan eta, Nafarroako Gobernuak baimendu eta Mendi Zerbitzuak markatu ondoren, Olaztiko Udalak epaitzak banatuko dizkie ordenantza honen 16. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten famili unitateei.

43. artikulua. Olaztiko Udalak urtero finkatuko du famili unitateei adjudikatu beharreko epaitzen bolumena, mendian dagoen egurraren arabera. Noizbait beharrezkoa baldin bada eten egingen da aprobetxamendu hori, Udalarari egoki iruditzen zaion denborarako.

44. artikulua. Epaitzak zuzenean erabili beharko dira eta onuradunak ezin izanen ditu saldu. Epaitz horiek biltzeko epea hiru hilabete da enkantetik hasita, Alkatetzak edo haren eskuordeak baimen espresua eman ezean.

45. artikulua. Adjudikatu diren epaitzetatik kanpora, botatzeko arbolen enkantea egingen du, urtero, Olaztiko Udalak.

46. artikulua. *(2015eko abuztuaren 11ko boletinean argitaratua, 155. zenbakiduna)*

Etxeko egurrarengatik ordaindu beharreko kanona ordenantza honen eranskinean ezarri dena izanen da.

Olaztiko Udalak etxeko egur lote bakoitzeko kanona aldatzen eta/edo eguneratzen ahalko du, osoko bilkuran Onetsi ondoren, horretarako kontuan hartuz loteak

markatzearen eta bideak konpontzearen kostuak eta lanak sortutako beste kostu batzuk, betiere behar bezal justifikatzen badira eta zuzenean loteei egozten bazaizkie.

47. artikulua. Berridatzia. Onuradunak behartuta daude egurra jaso ondotik hondarrak bildu eta pilatzera. Hondar horiek ezin izan diren dira pilatu ez bideetan, ez areketan, ez mendiko pistetan, ezta oztopo izan daitezkeen lekuetan ere. Betiere, Udalak ematen dituen jarraibideei kasu eginen zaie. Artikulu honetan ezarritakoa betetzen ez dutenei urtebetez ukatuko zaie aprobetxamendu hau.

Bideetan, itxituretan edo gainerako arboletan egiten diren kalteak haien erantzuleak konponduko ditu, betiere eragotzi ahal izan badira.

Lotearen onuradunak osorik edo partzialki aprobetxatzen ez badu horretarako ezarritako epean, lote bera esleituko zaio (gainerako loteen bolumeneraino osaturik, aprobetxamendua partziala izan bada), hurrengo urtean loteen banaketa egiten denean, eta berri ere ordaindu beharko du dagokion tasa. Kasu bakoitzean aztertuko da zergatik ez den lotea atera ahal izan; ateratzeko epea luza daiteke, bidezko juzgatzen denetan.

VI. TITULUA

Adjudikatzeko bidea

48. artikulua. Aldez aurretik Udalak erabakia hartuta eta bertako iragarki oholean paratutako ediktuen bitartez, 15 eguneko epea irekiko da, eskubidea dutela uste duten lagunek herrilurretan nahi dituzten aprobetxamenduak eska ditzaten.

49. artikulua. Aprobetxamenduen eskabideekin batera ondoko alderdien gaineko zinpeko aitortpena aurkeztuko da:

- a) Olaztiko herritarra izatea, hiru urteko antzintasunaz bederen eta urtean, gutxienez, bederatzi hilabete udalerrian bizitzea.
- b) Famili unitateko kideena, famili liburuaren fotokopiarekin batera.
- c) Udallerri honekin eta onuradunak loturak dituen toki entitateekin zerga betebeharrak guztiak eguneratuak izatea.
- d) Udallerri honetan eta beste batzuetan lurren jabea baldin bada, horien azalera eta motak (baratzak, belar soroak, etab.).
- e) Errentan edo bestela erabiltzen diren lurrak.
- f) Azienda buruen kopurua, horien mota eta osasun ziurtagiria, larreen erabilpena eskatzen denean..
- g) Famili unitateko kide bakoitzaren dirusarrerak: nekazaritzaren, industriaren edo zerbitzuen sektorekoak, gizarte segurantzako pentsioen bidezkoak edo bestelako errentatakoak.

Zinpeko aitorten hori egiaztatzeko, Olaztiko Udalak ahalmena izanen du errenta mailak egiaztatzearren beharrezkoak iruditzen zaizkion agiriak eskatzeko.

50. artikulua. Eskabideak ikusirik, Udalak aprobetxamendu mota bakoitzera onartutakoen zerrenda onetsiko du, behin-behinekoz, adjudikatu beharreko lotea eta tokia ere azalduko dituena.

51. artikulua. Behin-behineko zerrenda Udaleko iragarki oholean paratuko da 15 egun balioduneko epean, egoki juzgatzen diren alegazioak egin ahal izateko. Alegaziorik aurkezten ez bada, behin-behineko zerrendak behin betikoak bihurtuko dira.

52. artikulua. Alegazioak eta zuzendu beharreko akatsak izanez gero, Udalak horiei buruzko ebazpena emanen du eta mota bakoitzeko aprobetxamenduen eta onuradunen behin betiko zerrenda onetsiko, tokia edo lotea ere azalduko dituena.

Epaitzak zozketaz adjudikatuko dira; behar adina epaitz ez badago, daudenak zozketatuko dira, eta hurrengo epaitzetan zerrendako gainerako eskatzaileek izanen dute lehentasuna.

VII. TITULUA

Arau-haustek eta zehapenak

53. artikulua. Honako hauek arau-hauste administratiboak dira:

- a) Aprobetxamendua zuzenean eta pertsonalki ez egitea.
- b) Herrilarreetan bazkatzen den aztearen osasun babesari buruzko Foru Legean eta Erregelamenduan xedatutakoa ez betetzea.
- c) Aprobetxamenduen sariak Udalak finkatzen dituen epeetan ez ordaintzea.
- d) Herrilurraren aprobetxamendua nabarmen gaizki egitea, edo ez osorik.
- e) Herrilurrari adjudikazioko erabilera ez dena ematea.
- f) Animalia hilak lurperatu gabe uztea.
- g) Larratzeko eremuak ez errespetatzea.
- h) Ordenantza honetan xedatutakoari kontra egiten dion edozein egintza edo ekintza.

54. artikulua. Arau-hauste horiek ondoko zehapenak izanen dituzte:

_a), b), c), d) eta f) arau-hausteengatik kontzesioa kenduko da, nahiz eta horrek ez duen galaraziko Nafarroako Gobernuaren organo eskudunek zehapenak ezartzea.

_Gainontzeko arau-hausteengatik, eragindako kaltearen balioaren halako bost eta halako hamar bitartean ordainaraztea. Balio hori zehazterik ez badago, 60tik 1200 euro bitarteko zehapena ezarriko da.

_g) eta h) arau-hausteengatik, egindako kaltearen balioaren halako bost eta halako hamar bitartean ordainaraztea. Balio hori zehazterik ez badago, 60tik 1.200 euro bitarteko zehapena ezarriko da.

Hori guztia, herrilurren gainean indarra duen araudia aplikatuz ezar litezkeen zehapenak deusetan ukatu gabe.

TARIFEN ERANSKINA

(2025eko martxoaren 4ko boletinean argitaratua, 43. zenbakiduna)

-Herrilurretako aprobetxamenduengatik urteko kanona (20. artikulua): **45,00euro**, hectárea bakoitzeko. Kanona hilabeteka hainbanatuko da, emakien altarik edo bajarik gertatzen bada ekitaldian.

Urteko gutxieneko kitapena, aprobetxamendu mota bakoitzeko 5,00 eurotako izango da.

- Azienden jabeek ordaindu beharreko kanona (40. artikulua):

–Behiazienda: 6 euro, buruko.

–Behorazienda: 4 euro, buruko.

–Ardiazienda eta ahuntzazienda: 0,75 euro, buruko.

–Ardiazienda bakarrik gauaz eramaten bada mendira, tasa 0,50 euro izanen da buruko.

- Kanona, egur lote bakoitzeko (46. artikulua): 30 euro.

Kanona bi zatikitan ordainduko da. 15 euro ordainduko dira, lotearen eskaera egitean, eta gainerakoa, berriz, zozketaren egunean. Zozketara ez doazen pertsoneri ez zaie itzuliko hasieran ordaindu duten diru-kopurua.

2025eko martxoaren 4an eguneratua NAO ZK 43